

Baserritar izukaitza

Orain barri, agure aberats bat bizi zan Otxandion, gabero-gabero bere baserritik kalera tapa - tapa etorten zana. Ango taberna - zulo batean, kartetan luzaro egin, kopatxo ta kapia artu, ta bere pipatzarrari putz eta putz eragiñik, goizaldeko ordu illunetan abiatzen zan, erri-ondoan egoan bere baserrirantza.

Ta bere andrea kezkatan. Zergerta ete leikion kezkatan beti. Senarrari bere oitura txar ori kendu bear eikiola ta, asmatan jarri geure atso urduria. Erriko mutillen izen batzu etorri yakozan bere burura, baita, ea susto on bat bere senarrari emoteko prest egozan, eurai itaundu be...

Eta gazteak, baietz!

Ba etorren,urrengo gabaz, geure agurea betiko lez bere purutzarrari putz eta putz. Eta kanposantu aurretik igarotzean, andik baitzan bere etxerako bidea, or ikussten ditu aren ormaren gañean, izaraz jantzitako bi izaki zuri, euren egal zabalak batera ta bestera astinduaz.

—To...! Purgatorioko arimak...!

Ez bildurtu alan be agure zarra... Ta arien ondora astiro-astiro joanik, makilla goratu, ta euren

gonapeetan sartzen dautse, berko praka illunak agertu-erazoz, Zuriz jantzitako mutillak, duan, moxoluen antzeko «uan» zaratak atara, ta uxatzen dabe, eurek nai orduko, geure agurea sarta,

Etxera joan da, bere andrea

—Purgatorioko arimak ikusi yoadazan.

—Nun?

—Kanposantuko orma-gañetan

—Gogorra dok, ba, ori!

—Bai, gogorregial

—Ta, baiez igarri, zer iñoen?

—Ezetz?

—Ba, kalera gabero joateko oitura txar ori kenduteko!

—Ez, bada!

—«Ua - ua» kako deadarra egindaustadatan bakarrik.

—Zuriz jantziritako izakiak balyozan, parte onakoak ziran.

—Eta, hartzazkoak, ba-yozan...

—Parte tserrekoak!

—Ba, neurre oriek, ez yozan ez bateko, ta ez bestekorik.

—Nolaketa? Ha, beraz?

—Alderdik, hau hartz eta bestezurikoa, elur neurre arima oriek!

—Arriluze? Dok, bada, ori!

—Naiko amilizekoa bai! Oingo pika antzeko, arima oriek, neurri amarru oki, ha egiteko asmoen ebillen pikanteak ziran.